

# Harreman publiko-komunitario-kooperatiboak eraikitzeaz



**BEÑAT IRASUEGI IBARRA**  
KOOPERATIBISTA

**G**ure lurraldeetan eta bizitzetan sortzen diren behar, desio eta ekimenen inguruan gero eta gehiago entzuten dugu harreman eta proiektu publiko-komunitarioak landu beharraz, eta pozgarria da benetan, merkaturik gabeko gizarte antolaketarako ezinbesteko ereduak baita. Baina kontzeptu politiko huts bihurtzeko arriskuarekin, beti bezala *zer* eta *nola* galderei erantzun behar diegu.

Karl Polanyi-k ederki azaldu zuen, herrigintzan eta kooperatibagintzan gabiltzanok oso modu intuitiboan bada-kiguna, gizartea ez duela merkatuak gidatzen eta antolatzen; eta utopia liberal hori, teknokapitalismoaren garaiotan ere, erabat disfuncionala eta bizitzaren kontrakoa dela. Zerbait erakutsi badaitteke da, estatu eta merkatu forma ezberdinen artean, komunitatearen antolaketak izan dela gizartearen antolaketaren erdigunea, humanitatearen historia luzean zehar.

Harreman eredu publiko-privatua hegemonikoa den gure errealtatean, eredu publiko-komunitarioa da kezka sortzen duena, kapitalismoaren Troiako

Publiko-privatuaren dikotomia onartzeak praktikaren eta diskurtsoaren kaiola neoliberallean ondo lotzen gaitu, berdin du publikoaren edo pribatuaren aldetik egiten dugun

zaldi ezkutu bat balitz bezala, Agamemnon eta bereak gure estatu, harreman eta bizitzetan erabat barneratuak ditugunean. Publiko-privatuaren dikotomia onartzeak praktikaren eta diskurtsoaren kaiola neoliberallean ondo lotzen gaitu, berdin du publikoaren edo pribatuaren aldetik egiten dugun.

Gizartearen antolaketa komunitarioa garatzeko, berriz, herrigintzaren eta

langile klasearen tresna bat erabiltzeaz seriozki hitz egin beharko dugu; kooperatibismoaz ari naiz, bai. Lurralde eta proiektuetan, harreman ez merkantilizatuz ariko bagara, eta *nola* galderari erantzunez, ardatz kooperatiboa gehitu beharko diegu, izaera publiko-komunitarioko pentsamenduari eta praktikari.

Adibideak baditugu, kooperatibetan eremu publikoa eta komunitarioa txertatzen dituztenak, berriki herri kooperatiba eta energia komunitateetan, edo kooperatibek lurraldearekin eta jendar-tearekin konpromisoz, eraikitzeke gai diren interkooperazio harreman konplexuetan ikusten ditugunak.

Kapitalismoak bizitzaren aurka egiten duen egiturazko merkantilizazio prozesuan, eta estatuaren, beraz, esparru publikoaren, apropiazio autoritarioaren aurrean, eremu eta proiektu komunitarioak baliabide materialez hornitu, eta egitura publiko-komunitario-kooperatiboekin finkatzeko ordua da. Ezin dugu teoriaren zingiran ito, praktika eraldatzaileak aitortu eta zabaltzeko ordua da, lurraldeak, harreman materialak eta bitzita duinak josteko garaia. ●

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A

KUADRILLAKO BERTSO EGUNAK

14 ekimen, Arabako eskualde denetan

URTARRILAK 22 - APIRILAK 5

4 FINLERDI eTA FINLA

14 talde, 76 bertsolari, 17 epaile, 21 gai-jartzaile, eta beste 11 laguntzaile

www.bertsozale.eus/araba

araba alava  
New edition of the traditional festival

LKS

LABORAL

Vital

urteko TRAZA

artepan

ARGIA